

ZALDI URDINA

TXOSTEN PEDAGOGIKOA



Unai Iturriaga eta Igor Elortzarekin idatzia
Artedrama · Axut! · Dejabu

SAR-HITZA

Irakasle estimatua,

Antzerkia oro har gertakizun berezia bezain magikoa da. Antzerkilariak, hitzekin, keinuekin, gorputzarekin, musikarekin edo apainketarekin haien barne irudi eta sentimenduak taularatzen dituzte espazio batean.

Antzezlan baten ikustera joatea ez da gertaera kontsumitzaile hutsa, baizik eta zuzenean bizitzen den une berezia. Zentzua hartzen du antzerkilaria eta ikuslearen arteko elkarretaratzea gertatzen delarik eta harreman hori ikasgelan oihartzun bilakatzen delarik.

Hortaz, esku artean duzuen txosten pedagogiko honetan, Zaldi Urdina antzezlan ikasleekin lantzeko hainbat tresna proposatzen dizkizuegu. Antzezlanean nagusitzen den gaia sakontzeko xedearekin, dokumentu mota anitza eta eskuragarria aurkituko duzue bertan: entzungaiak, artikulak, bertsoak, kantuak, dokumentalak, literatur testuak... ahozkoa nahiz idatzizko kompetentziak lantzeko sarbide ezberdinak.

Antzezlan ikusi aitzin edo ondotik balia dezakezue materiala; ikasgai ezberdinen artean lan eginez edo elkarlana sortuz. Zaldi Urdina antzezlan 4.etik Terminalerako edo Batxilergoko lehen urteko ikasleei zuzendua zaie.

Gogotik eskuratuko genituzke zuengandik gai honen inguruko edozein material gehigarri.

Zuei eta zuen ikasleei antzerki topaketa sustagarria eta aberatsa opa dizuegu!

AURKIBIDEA

01. ZALDI URDINA: ANTZEZLANA	05
02. AFIXA-KARTELA	06
03. SINOPSIA	08
04. PERTSONAIK	09
05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:	
· ARTIKULUAK	10
· BERTSOAK	11
· BIDEO LABURRAK	12
· DOKUMENTALAK	13
· ENTZUNGAIK	14
· FILMAK	15
· KANTUAK	16
· LITERATUR TESTUAK	17
· ZALDI URDINA OBRAREN ZENBAIT PASARTE	17
06. URRUNAGO JOATEKO: GOGOETA, HAUSNARKETA, EZTABAIDA, HITZALDIAK, TOPAKETAK:	
· AI LAKET!! ELKARTEA	18
· JUSTO ARRIOLA IDAZLEA	19
07. GEHIGARRIAK:	
· MATERIAL GEHIGARRIA FRANTSESEZ, GAZTELERAZ ETA INGELESEZ	20
08. ARGAZKIAK	23

01. ANTZEZLANA

ANTZEZLANA ABIAPUNDUA

Artedrama, Axut! eta Dejabu Panpin Laborategiak elkarrekin sortu dugun laugarren ikuskizuna dugu "Zaldi Urdina". Erreferentzia egiten diogu horrela, zaldi zuria izenez Euskal Herrian hain ezaguna izan den heroinari. Zeren egitate horretatik abiatzen baita ikuskizun honen planteamendua: oso erraz aurkitzen da heroina (eta edozein droga) Euskal Herrian. Trantsizio garaitik hasi zen heroina Euskal Herriko zazpi kantoietan gazteria inbaditzen. Durango batean, heroinak, gerlako bonbardaketak baino hil gehiago eragin ditu.

Ikerketa askok trafikoaren iturria Guardia Zibilaren kuarteletara eramaten dute.

Baina, horrek zer eragin ukan du familietan, lagunartean edo bikote harremanetan? Zer eragin du gazteriaren ametsetan? Zertarako isildu da gertakaria? Zertarako betidanik sentitu da drogaren behar ezinbesteko hau? Miseriatik ihes egiteko? Patua bestelakotzeko? Izarrekin besarkatzeko? Hauek dira ikuskizun honek jorratuko dituen galdera eta istorioak

ANTZERKI DOKUMENTATUA:

Aurreko sorkuntza elkarlanetan bezala, ikerketa lan batetik abiatu da sorkuntza. Ikerketa horiek idazle, zuzendari eta aktore taldearekin partekatu dira. Iraganean zein gaur egun drogaren auziarekin loturiko pertsonak, taldeak eta erakundeak elkarrizketatuak izan dira.


Gaia kazetaritzaren edo kronikaren ikuspegitik zein molde artistikoan landu duten deneriko adierazpideetako materiala ere erabilia izan da. Burutu den ikerketa lana eta horretarako baliatu diren erreferentziak webgunean berean aurki daitezke osoki, baita txosten pedagogiko honetan agertzen den material pedagogikoaren zerrendan ere.

01. ANTZEZLANA


IZENBURUA:

Euskal Herrian nahikoa da “Zaldi zuria” esatea burura etortzeko heroina eta 1980ko hamarkada. Eta behin buruko errota martxan ipinita, segituan etorriko zaizkigu burura beste hainbat auzi ere: gazteria eta rock musika, askori; hiesa eta heriotza, ez gutxiri; gatazka politikoa eta botereen esku beltza, beste hainbati. Auzia da droga kalean dela, hemen eta orain, bere ertz eta erabilera guztiekin. Eta, tartean, heroina itzuli dela. Hortik izenburu metaforikoa: ZALDI URDINA.

02. AFIXA-KARTELA



02. AFIXA-KARTELA



GOGOETA/LANKETA PISTAK:

- Zer erran dezakezu izenburuari buruz?
- Zer diozu afixaz?
- Zein informazio mota agertzen da?
- Afixa eta izenburuak aztertu ondoan zer-nolako antzerkia espero duzu?

OIER ZUÑIGA AFIXA EGILEAREN HITZAK

Dantzan ageri zaigu zaldia. Zaldi zuria da, paper urratuzkoa eta giza hanka-besoak ditu. Mugimenduan dago baina ez dakigu nora begiratzen duen ezta zein sentipenek zeharkatzen duten. Aurpegirik gabeko zaldi urratua dugu. Zerk urratua? Denborak utzitako markak dira? Edo minak zeharkatutako arrastoak...

Soinean, izarrez betetako unibertsoa du jantzita. Esku batek hutsunea sorrarazten dio; izarrak heldu nahiko balitu legez, baina ezin du. Ez daude agian. Dimentsioak nahasten dira, eta ez dakigu unibertsoa hemen den, atzerago edo aurrerago. Espazioak ireki egiten dira ezker-eskuin, Behera, leiho berdea, belarrezko dantza-zelaiaren gainetik. Atzean eskuinean, beste norabaiteko ate arrosa. Arrasto zuri batek perfiatuta dago atea, esku-besoak bezalaxe. Inork marraztu ditu? Inork urratuko zituen? Inork probatuko ditu?

Paisaia urdinean dagoen zaldia erakargarria da, ustezko alaitasunean festarako gonbita da bere horretan. Arazoez paso egiteko atea, leihoa, izana eta presentzia. Bere baitan ordea, giltzapetuta norbaiten itzala dago. Preso, begirada makur eta hasperenka. Gernikako tragedia urrun daukagu akaso eta hau ere tragedia da.

03. SINOPSIA

Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da, tekno jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, trapitxeroa bera delakoan.

Amets, Aingeruren 22 urteko arreba errebeldea da, gaztetxe eta bizimodu osasuntsu zalea. Ikerketa bat hasiko du, Karmen amona eta Simon udaltzain traketsarekin batera.

Aingeru poliziek baino lehenago aurkitu behar dute, eta abokatu on batekin joan epaitegira. Astebeteren barruan, 18 urte bete baino lehen. Atzera kontaketa bat da.

Ikerketa amateurraren bidean gurutzatuko dituzte gazteriaren ondoezak eta ametsak, trafikanteen eta interes ekonomikoen boterea, indar polizialen konplizitatea eta politika baten aztarna.




GOGOETA/LANKETA PISTAK:

1. Elementu berri hauekin, zure ustez zertaz ariko da antzerkia?
2. Sinopsiak antzezlanari buruz xehetasun guti eskaintzen du nahitara. Zergatik?

Zaldi Urdina Teaser.

<https://www.youtube.com/watch?v=n1pJLKN10jg>

04. PERTSONAIAK



- Amets
- Jon
- Karmen
- Itziar
- Irati
- Aitor
- Simon
- Katu

Beste:

- Gazteak
- Polizia
- Kazetariak
- Medikua
- Bidaiariak



05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:



ARTIKULUAK:

Belaunaldi zauritua, Gotzon Hermosilla,
BERRIA, 2013/12/01

- [Link](#)

Drogak, xehe-xehe, Igone Fdez. Mariezkurrena
eta Raul Perez, GAZTEZULO, 2010/02/05

- [Link](#)

**«Erantzukizun politiko eta poliziala argitu
behar da; ez zuten heroína-trafikoak gelditu
nahi»** Justo Arriola, BERRIA, 2017/06/18

- [Link](#)

Hautsak harrotzen, Julio Soto,
BERRIA, 2013/02/27

- [Link](#)


Lege babesa klubentzat, Garikoitz Goikoetxea,
BERRIA, 2014/10/09

- [Link](#)

80. hamarkada, drogak eta Hiesa, Lorea, ZUZEU,
2011/08/19

- [Link](#)

05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:



BERTSOAK:

Xabier «Euzkitze» – 1993/12/19

Donostia Euskal Herriko Txapelketa.

Gaia: Drogazalea zaitugu. Drogaren atzetik beste zenbaiten diruak xahutu dituzu. Gaur, azkenik, zeure amaren pitxien kutxara heldu zara.

<https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/jrstk>

Lizaso eta Irazu – 1997/12/14

Donostia, Euskal Herriko Txapelketa

Gaia: Bizilagunak zarete zuek. Beste askotan bezala, gaur etxeko atarian topo egin duzue. Sebastian Lizaso txikiteotik zatoz eta Jexux Mari Irazu alkoholaren ondorioak aztertu dituen hitzaldi batetik.

<https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/k2dac>

Maialen Lujanbio – 2017/12/17

Barakaldo, Euskal Herriko Txapelketa

Gaia: Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

<https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/14nj4g>

05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:



BIDEO LABURRAK:

Josu Zabala: '80ko udaberria heroinak zapuztu zuen; dena pikutara joan zen' (Heroina ondoren, Ur handitan saioaren zati bat – ETB -2019/04/30) 2'21

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ur-handitan/bideoak/osoak/6374236/bideoa-josu-zabala-eta-gari-drogek-80ko-hamarkadan-sortutako-kalteez>

Miren Etxabe: Lagunak hiltzen ikusi nituen; egun batean bat, hurrengoan bestea, gero bestea... (Heroina ondoren, Ur handitan saioaren zati bat – ETB - 2019/04/30) 8'

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ur-handitan/bideoak/osoak/6293271/bideoa-ondarruko-marian-etxabek-urteak-eman-zituen-heroina-kontsumitzen>

05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:



DOKUMENTALAK:

Durango 80 herri kultura (Unai Iturriaga/
Bideografi ekoitzetxea) 2011

[https://www.argia.eus/multimedia/
dokumentalak/durango-80-herri-kultura](https://www.argia.eus/multimedia/dokumentalak/durango-80-herri-kultura)

Salda badago – Euskal Rockaren hastapenak (Eriz
Zapirain / Orio Produkzioa) 2001

[https://www.argia.eus/multimedia/
dokumentala/salda-badago](https://www.argia.eus/multimedia/dokumentala/salda-badago)

Heroina ondoren, ur handitan (ETB - 2019/04/30)

[https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/
ur-handitan](https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ur-handitan)

Drogen debeku politika – (KANALDUDE
– 2018/10/19) - Drogen legalizazioa eta
prebentzioari buruzko eztabaida eta erreportaiak,
Ai laket elkartearen eskutik.

[https://kanaldude.eus/bideoak/3477-zuzenean-
zure-esku-22-drogen-legalizazioa](https://kanaldude.eus/bideoak/3477-zuzenean-zure-esku-22-drogen-legalizazioa)

05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:



ENTZUNGAIAK:

Idazleak eta droga

(Koldo Izagirre – Euskadi Irratia – 2000/11/14)

http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_FLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=25943

Drogak Euskal Herrian: nola jokatu?

(mintzaldia 2007/03/07)

<http://www.radiokultura.eus/emankizunak/drogak-euskal-herrian-nola-jokatu>

05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:



FILMAK:

27 ORDU (Montxo Armendariz – 1986)

Iraupena: Oren 1 eta 20 min

<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/>

[film-luzeak-zinema-euskar](http://www.eitb.tv/eu/bideoa/film-luzeak-zinema-euskar)

[az/902706492001/1493142506001/27-ordu/](http://www.eitb.tv/eu/bideoa/film-luzeak-zinema-euskar/az/902706492001/1493142506001/27-ordu/)

05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:



KANTUAK:

Legalize it! BETAGARRI

(Hitzak: Iñaki Ortiz de Villaba / Musika: Betagarri)

– 1997 – Lorenzo Records

- [Link](#)

Drogak! KLORATITA


(Hitzak eta musika Kloratita taldea) – 2006 –
Musikherria

- [Link](#)

Ustelkeria NEGU GORRIAK

(Hitzak: Fermin Muguruza, Iñigo Muguruza /
Musika: Fermin Muguruza, Iñigo Muguruza, Kaki
Arkarazo) – 1991 – Esan Ozenki

- [Link](#)



05. GELAN LANTZEKO ZENBAIT SARBIDE ETA MATERIAL PEDAGOGIKO:

LITERATUR TESTUAK:

Eleberri zatiak:

- **Jenis Joplin**, Uxue Alberdi,
SUSA, 2017 (27-28.or, 275.or)
- [Link](#)
- **Zaldi mamarroa**, Ekaitz Goienetxea,
ELKAR, 2018 (84.or, 144.or, 298.or)
- [Link](#)

Ipuinak:

- **Traizioak**, Iban Zaldua,
EREIN, 2001, **Droga** ipuina (41.or)
- **Euskal Hiria Sutan**,
Xabier Montoia, ELKAR, 2006,
Itxaropena ipuina (117 .or)
- [Link.](#)

Zaldi Urdina antzezlanaren pasarteak:

- 3. KARMEN I: EKIBOKATZEKO ASTIRIK ERE EZ
- [Link](#)
- 11. AUTOAN: AMETS, KARMEN ETA JON
- [Link](#)
- 22. RESTOPEAN II: JON ETA AMETS,
SIMON, KARMEN
- [Link](#)

06. URRUNAGO JOATEKO: GOGOETA, HAUSNARKETA, EZTABAIDA, HITZALDIAK, TOPAKETAK:



AI LAKET!! ELKARTEA

Zer da Ai laket!!?

Ai laket!! 1998 urtean sortu zen kolektibo gisa. Kideak kezkatuta zeuden droga ilegalizatuen erabiltzaileen egoeraz. 2002 urtearen hasieran irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, legez kanpoko drogen erabiltzaileek eta erabiltzaile ohiek osatutakoa.

Oinarrizko premisa batetik abiatzen gara: drogak betidanik izan dira giza-kulturaren parte eta, horrenbestez, zentzuzkoa da pentsatzea hala izaten jarraituko dutela. Gure ustez, gero eta agerikoagoa da debekuan oinarritutako politikek, substantzia jakin batzuen erabateko abstenentzia lortzea helburu dutenek, ez dutela eraginkortasunik, substantzia horiei loturiko arazoak txikitu beharrean haiek areagotzen laguntzen baitute. Egoera horren aurrean, substantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apustua egiten du Ai laket!! elkarteak, erantzunkizunez kontsumitzearen ikuspuntutik eta haiek erabiltzeak dakartzan arriskuen autogestioaren ikuspuntutik. Uste dugu drogak kontsumitzea edo ez kontsumitzea norberaren erabakia dela, eta erabaki hori pertsona helduek hartu beharrekoa dela, modu askean eta informazioan oinarrituz. Ai laket!!-en helburua ez da erabaki horretan eragitea, informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria ematea baizik, hartara, kontsumituz gero, ahalik eta iritzi-elementu kopuru handiengan oinarritutako hausnarketa baten ondorio izan dadin.

ailaket!!



Informazio gehiago:

www.ailaket.com

www.bizia.org

06. URRUNAGO JOATEKO: GOGOETA, HAUSNARKETA, EZTABAIDA, HITZALDIAK, TOPAKETAK:




JUSTO ARRIOLA idazlea

**A los pies de caballo. Narcotráfico, heroína y
contrainsurgencia en Euskal Herria**

TXALAPARTA, 2016

Batzuek esan didate ez zutela nahi berriz hori burura ekartzea, berriz bizitzea. Baina beste batzuek arazorik gabe kontatu didate dena. Jende pila bat hil zen. Min handia dago hor oraindik; batzuek atera dute, eta beste batzuek, ez.

Justo Arriola, BERRIA 2017/06/18



07. GEHIGARRIAK



MATERIAL GEHIGARRIA FRANTSESEZ, GAZTELERAZ ETA INGELESEZ:

ARTIKULUAK:

Gazteleraz:

- **El fracaso de la Guerra contra las Drogas, en un solo grafico**, www.publico.es, 2018/08/28 (-Link)
- **Heroína y Transición: ¿narcóticos de Estado o síntoma de una sociedad rota?**, Esteban Ordoñez. (-Link)
- **HISTORIA Y CURIOSIDADES. San Sebastián fue la ciudad con mayor proporción mundial de población adicta a la droga**, Ikusle – 2018/05/04 (-Link)
- **La adicción a la heroína consume Estados Unidos**, Idoya Noain / Nueva York 2017 /08/27 (-Link)
- **Pinochet narcotraficante: la historia de como introdujo la pasta base en las poblaciones**, www.gamba.cl (-Link)

Frantsesez:

- **Stups : le «Chacal»,source du scandale**, Emmanuel Fansten, Libération, 2017/09/28 (-Link)
- **Stups : le scandale s'élargit**, Emmanuel Fansten, Libération, 2018/10/10 (-Link)
- **Les GAL hantent toujours l'Espagne**, Emmanuel Fansten , Libération, 2017/09/28 (-Link)

07. GEHIGARRIAK



BIDEO LABURRA ETA DOKUMENTALAK:

· Bideotxo txiki honek biziki laburki eta argiki azaltzen digu nola sortzen ditugun adikzioak (ingelesez):

<https://www.youtube.com/watch?v=ao8L-0nSYzg>

· **Guerra sucia y narcos:**

<https://www.youtube.com/watch?v=MqhgsqIHrjE>

· **HEROINA,**

Elaine McMillon Sheldon, 2017 (16 urtetik gora) – 39'

· **Los 80, drogas, sida y punk en Euskal Herria:**

<https://www.youtube.com/watch?v=DYkJxj8mFAg>

· **Narcotráfico , su relación con el Estado y la política:**

<https://www.youtube.com/watch?v=lPwTwj4kTMc>

· **Rock Radikal Vasco - La Gran Martxa de los 80:**

<https://www.youtube.com/watch?v=lWx8kpInDXI>

07. GEHIGARRIAK



ELEBERRIAK ETA FILMAK:

- **A los pies de caballo. Narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria**, Justo Arriola, TXALAPARTA, 2016
- **Chinatown** filma (1974) Roman Polanski
- **Gato negro, Gato blanco** filma (1998) Emir Kusturica
- **Las invasiones bárbaras** filma (2003) Denys Arcand
- **Millenium sagako nobelak eta zinemarako moldaketak** (2009) Stieg Larsson
- **My name is Joe** filma (1998) Ken Loach
- **Requiem pour un sueño** filma (2000) Darren Aranofsky
- **The corner** seriea (ingelesez, azpituduluak frantsesez) (2000) David Simon eta Ed Burns
- **Trainspotting** nobela eta filma (1997) Irvine Welsh eta Danny Boyle
- **Traffic** filma (2001) Steven Sonderbergh

08. ARGAZKIAK

